

«Euskal Herrian Euskaraz»: «Errealistak izan nahi eta izan behar dugu»

Euskararen egoera latza da gaur, Hego eta Ipar Euskadin

El grupo "Euskal Herrian Euskaraz" manifiesta que su postura es realista y que, para ello, abre los ojos y observa la dura realidad en la que vive hoy el euskara, a pesar de las palabras de los políticos que prometen que, una vez muerto el dictador, el pueblo iba a recobrar su identidad. Para EHE, la realidad que se vive a nivel de todas las instituciones — desde el CGV hasta la mayoría de los Ayuntamientos — es claramente discriminatoria hacia el euskara que, siempre que se invoca la legalidad vigente — y acude a ella incluso el CGV — resulta en clara inferioridad ante el castellano. No se libran de la crítica los políticos, incluso aquellos que, a pesar de las buenas teorías de sus partidos o coaliciones sobre este tema, se resisten a euskaldunizar.

DONOSTIA (EGIN).— Gaurko manifestazioa dei eginez, orrixa bat kaleratu du "Euskal Herrian Euskaraz" taldeak. Bertan idatzitako puntuak hauexek dituzue. Lehen puntu batek zera dio, "Franco hilda gero sinetsi nahi izan zigute demokraziaren hildotik abiatu ginela "eta" gure Euskal Herriko lau eskualdeotan gure nortasuna berjabetuko zela, baita "Euskara plazara jalgioko zela ere". "Baina gauzak bestela gertatu dira eta ari dira gertatzen gaur egun ere", dio orriaxak. "Sasi-utopietan eta sasi-ametsetan sinesten ez dugulako errealistak izan nahi eta izan behar dugu", diote, "eta errealitatea hortxe dugu egunero gure begi aurrean, hainbatek begiak ixten baditu ere".

Errealitate latz horretatik hartutako adibide batzu azaltzen ditu orriak, Errenterian eta Ortuellan euskararen kontrako diskriminazioak gogoraziz. "Eta hau gutxi balitz, Eusko Kontseilu Nagusiak berak Errenterriako Udalaren erabakia — langileak kontratatzeko momentuan euskarari ere baliotasuna ematen ziona, hain zuzen — ezeztatatu egin du, Konstituzio berberari dei eginez eta, borobilago egitearren Autonomi Estatuotaren zenbait artikulutan oinarriturik". "Jakin beharra dago, bestek beste, EKNko alderdi maioritarioa, PNV dela, eta berak ere, inposatu digu-

ten Espainiako Konstituzioari, ezetz esan ziola".

"EKNren bulegoetara bertako zenbait buruzagirengana eta beste zenbait jaun-andrengana zuzentzen bagara gaztelania soilean mintzatzera bortxatzen gaituzte, administralgoaren dokumentazio, artxibo, agiri eta abarrak gehienetan erdara hutsan daudelarik", diote orrian. "Bide beretik doazkigu gauzak ordezkari parlamentarioa duten alderdi politikoengana jotzen dugunean. Izan ere, zerrenda-buru eta postu nagusietan diren askok gaztelamiaz mintzaratzen gaituzte, nahiz HGko ordezkari nagusiak izan, hauek ere administrazio mailan darabilzten dokumentazio gehiena erdara hutsan dagoelarik".

"Udaletan daukagun egoera ere penagarria da, farragarria ez esatearren, Diputazioako lehendakariaren kontrasesanak ezin baino garbiagoak agertu dira, — irakur daitezke orri honetan —, Diputazioan euskaraz egiten diren interbentzioak erdararak nahiean, erdaraz egiten direnak euskarazetako asmorik agertzen ez duelarik".

Bilinguismo dekretuaren kontrasesanak

"Bilinguismo Dekretuaren kontrasesanak ere ageri agerian ditugu egunotan" diote EHEkoek. "Izan ere, idoneoen egoera ilun baino ilunago dugu, eta beren eskakizun-



Ederra da umek euskararen alde burrukan ikusteak. Eta ederragoa umek bakoitzaren familia osoa ikusteak. (EGIN argazkia)

nak inoiz baino premiazko eta bidezkoagoak. Era berean Gau-Eskolen eta Ikastolen egoera eta etorkizuna ez ditugu baiere garbi. Euskal prentsak (Anaitasuna, Zerugo Argia...) egun ezagutzen dituzten premia larriez ez du inork arduratu nahi; ez subentziorik ez ezin laguntza serioirik ez baitute jaso orain arte instituzio ofiziale-tatik. Izan ere, hizkuntza bat, eta are gutxiago gauden diglosia bortitz honetan, ezin da ez ikasi eta irakatsi ere ez ordu, material eta baldintza eskaxetan ari garen bitartean, inguru sozialak eragin baiezkor bat eskeini beharrean arras ukalorra agertzen duen bitartean, hots, Komunikabideak (Telebista, Irratiak, Prentsa, e.a.) Administralgoa, Irakaskuntza bera (ez baita berdin euskarazko klase batzu eskeintze gainontzeko gutzia erdara hutsan egiten eta eginaztzen den bitartean) eta giza-harremant funtsezko guztiak erdara

hutsan inposatzen dizkigutelarik".

Iparaldeko egoera

Ez pentsa, jaun-andreok, Ipar Euskal Herrian gauzak hobeto doazkienik, ezta gutxiagorik ere. Aitzitik ordea, Ipar Euskaldunak guk bezain nekez — nekezag ez esatearren, bertako egoera berezia kontutan izanik — lortzen dute euskaraz mintza ahal izatea Frantses legeak zigortu gabe. Izan ere, bertakoez diotenez, inoiz euskararen beharra eta praktika, familiako eta zenbait autogetitako ingurutik at, erre-ibindikatzen badute atxilotuak eta apaituak ere!!! izaten dira. Abenduaren 12an, hain zuzen ere, frantses inperioi Poliziak atxeman zituen lau gazte euskaldun Hendaian errepedietako "afitxak" euskaraz jartzen zebiltzelako.

Idatzirik lema hauekin amaitzen da: "Diskriminaziorik ez!"; "Nor-Nork diskriminatzen du?"; "Euskaraz noiz?"; "Bai Euskarari!" eta "Euskararik gabe Euskadirik ez".

Gipuzkoako Ikastolen Elkarte Batza

Ikastolarekin zerikusirik duten guztiei gaurko manifestazioa dei egiten die

La Federación de Ikastolas de Guipúzcoa ha hecho un llamamiento a acudir a la manifestación de hoy, en San Sebastián, a favor del euskara. Considera que el euskara es uno de los factores más importantes para la personalidad de nuestro pueblo y que cumple un papel esencial en el proceso de recuperación nacional.

Señala la necesidad de una política nacional para fortalecer al euskara. Esta debe ser tolerante, teniendo en cuenta las diferencias sociológicas de nuestro país, pero firme, gradual y racional. Para ello son imprescindibles tanto los medios económicos como legales. En cuanto a la comunidad vasca, manifiesta que, si no pone interés en aprender y utilizar el euskara, de nada valdrán los esfuerzos de los organismos públicos en favor de nuestro idioma. Pide finalmente que se apoye a todas las instituciones que trabajan por el euskara, al ser esta una riqueza de toda la comunidad vasca y, como tal, por encima de todas las diferencias ideológicas y de grupos.

Gipuzkoako Ikastolen Elkarte Batzak, gaur Donostian ospatuko den "Euskararen aldeko" manifestaldia dela eta, ondoko adierazpen hauek egin ditu agiri baten bidez:

1.— Euskal gizarteak ahalbait lehen hartu behar duela kontzientzia euskara euskaldunen arteko nortasun faktore nagusienetako bat dela eta: nazio erreberazio prozesoa euskarak behin behineko eragina duela.

2.— Euskal sendotzeko politika nazional behar dela. Horretarako, oraingo errealitatean finkatu eta euskararen ezaguera eta erabilera geroz eta gehiago zabaltzearen jokatuko behar delako.

3.— Euskal Herriko aginte publikoek izan beharko dutela, badiren kultur instituzioekin batera, euskara sendotzeko politika hori planifikatu, zuzperatu eta bultzatzearen kargudun.

4.— Herri honetako egoera soziologiko desberdinak kontutan harturik, lanerako plangintza egoera horietara egokitu beharko da. Tolerantea, baina zehatza, mailakoa eta razionala izan beharko du, eta bere ekintza arloa hezkuntza-rena, gizarte komunikabideena eta administralgoa izango dira batez ere. Horretarako behar diren medio guztiak antolatu beharko dira: bai ekonomikoak bai lege aldetikoak.

5.— Erakunde publikoek euskararen alde egin dezaketelako lan guztia alfer alferrikakoa izango dela baldin eta aldi berean euskal komunitate osoak, bai euskal hiztunak bai erdaradunak, euskararen ezaguera eta erabilkeraren aldeko borondate kementsuzko jarrera hartzen ez badu.

6.— Euskara euskal komunitate osoaren aberastasuna denez, eta gainera ideologia eta talde desberdin guztien gaitetik dagoenez, bere zabalkundearen alde ari diren kultur instituzioen alde jokatuko beharko dela.

Horregatik, beraz, EUSKARAREN ALDEko manifestaldi honen helburua euskararen beraren egoeraz eta horren aldeko neurriak hartu beharraz ohartaraztea dela uste denez, Federatuzko honek bertan parte hartzea erabakitzen du. Eta dei egiten die Ikastolarekin zerikusirik duten guztiei ere parte har dezaten, gure hizkuntzaren zabalkundearen aldeko borondatearen agerpen garbi eta zehatz bezala".

Cerrado el paso a Euskaltzaindia para Txillardegi

Se vislumbra un trasfondo claramente político

SAN SEBASTIAN (EGIN).— La elección de José Luis Alvarez Emparanza, "Txillardegi", como miembro de número de la Academia de la Lengua Vasca no fue posible en la reunión celebrada ayer a la mañana por el citado organismo en Hondarribia, al oponerse seis de los actuales académicos de número.

Al parecer, la actitud de los seis

académicos que se oponen a "Txillardegi" y dieron su voto a Patxi Altuna podría estar encabezada por Luis Mitxelena, cercano al PNV, y se podrían estar tomando en cuenta consideraciones de tipo político. En una reunión anterior celebrada en Forua, un académico de número confió que Txillardegi no podría entrar en la Academia mientras no ex-

presase públicamente un alejamiento de las posiciones de lucha armada.

El sillón de Lojendio

La reunión de ayer en Hondarribia durante la cual se iba a elegir al nuevo académico que cubriese el puesto de José María Lojendio, fue decidida por aquellos que están dispuestos a no dejar entrar en la institución lingüística a Txillardegi. De hecho ya se sabía que con un grupo reducido que no le votase, no podría ser elegido, a pesar de los diez votos a su favor, ya que el número mínimo necesario era de doce.

Euskaltzaindia está formada por veinticuatro miembros con voz y con voto, hoy veintitrés al haber fallecido Lojendio, pero a las reuniones nunca asisten siete académicos. De hecho, en la reunión antes mencionada de Forua se habló de pasar a estos siete académicos con voz y voto a académicos de honor y sustituirlos por otros siete. Fue entonces cuando se pudo conocer la verdadera causa de la imposible presencia en la máxima representación cultural de la nación, de José Luis Alvarez: su posicionamiento político. Aunque esto no deja de ser curioso, dado que en esta institución han tenido entrada hombres como Seminario de Rojas y Antonio Arrue, "calificados colaboradores de la dictadura franquista".



"Txillardegi"ri Euskaltzaindiako atea itxi zaizkio... ala itxi dizkiote? (EGIN argazkia)

Una vida en pro del euskara

José Luis Alvarez Emparanza "Txillardegi", donostiarra de cincuenta años de edad, es miembro correspondiente (Urgazte, en contraposición con los "Euskaltzain oso" miembros de número) desde el año 1957. Profesor de la Universidad de Burdeos de euskara en los cursos de 1970-71, expulsado por el ministro Marcellín por "inde-seable". Profesor desde 1976 en los EUTG de San Sebastián de Lingüística, Matemática, Fonética Vasca y Dialectología Vasca. Euskaldunberri, comenzó su recuperación de la lengua vasca en 1947.

A pesar de ser ingeniero, se licenció en Lingüística en 1976 en París, es también profesor en Deusto y director de la sección de Lingüística de UZEL. Tomó parte en el primer congreso de unificación del euskara en Bayona en 1964, cuatro años antes de la reunión en Aranzazu. Es escritor prolífico en euskara bajo los seudónimos Txillar-degi, Larresoro, Igara, Gohienetxe y Harribizketa. Director en el periodo 1966-1973 de la revista trilingüe "Branka". Asiduo colaborador de revistas vascas.

Su obra publicada

Leturiaren Egunkari Ezkutua. Peru Leartzako. Elsa Scheelen (Premio Academia 1968). Haizeta Bestaldetik. Hizkuntza eta pentsaketa. Huntata eta Hartaz. Ohinearte: Atsoitzak eta Neurtitzale. Sustrai Bila. Memmi: Portrait du Colonise (traducción). Walt Disney: "Herriak eta Gizonak" (Traducción). Euskara Batua zertan den Matematika 2, 3 y 4 niveles. Oinarri bila. Euskal Gramatika (Premio Lauburu de Plata). Aditz Batua (A petición de Euskaltzaindia). Fonologiaren Matematikuntza. Euskal Herriak Erdal Herrietara. Proyecto de Manifiesto Vasco. Media docena de obras de Freinet traducidas al euskara para la Federación de Ikastolas.